

4.4. Azken proiektua

> Nire ipuinik gustokoena



Helburuak

- Ikasitako edukiak eta egiturak erabiltzea.
- Lagunei beraien gustuko ipuinaz hitz egitea.

Prozedura

- Euren ipuinik gustukoaren argumentua idatzi eta ipuin horretako pertsonaien deskripzio txiki bat egingo dutela azaldu.
- Euren ipuinik gustukoaren argumentua idatzi. Aukera eman azken xedeko ipuinaren argumentuak irakurtzeko; eredu gisa erabil daitezke.
- Euren ipuinik gustukoaren pertsonaien deskripzio txikia egin. Nor den, zer den, nolakoa den...
- Hezitzaileak ume bakoitzaren fitxa zuzendu eta umeekin egon daitezkeen akatsak komentatu.
- Ume bakoitzak beste gelako lagunei bere ipuinik gustukoaren argumentua kontatu.

Oharra

- Oso garrantzitsua da ume bakoitzak bakarka lan egitea eta hezitzaileak banakako zuzenketetarako denbora hartzea.